



HERRI ADMINISTRAZIOETAN HIZKUNTZA NORMALIZATZEKO ZUZENDARITZAREN TXOSTENA

Espedientea: DNCG_LEY_6380/21_09

Abuztuaren 8an, *Tramitagune* tresna informatikoaren bitartez **Euskadiko Osasun Publikoaren Lege-aurreproiektuaren** berri jaso dugu Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendaritzan. Osasun Saileko Aholkularitza juridikoak bidali eta derrigorrezko txostena emateko ere eskatu digu.

Eskaera horri erantzunez, xedapen orokorrak egiteko prozeduran, euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezartzen duen azaroaren 6ko 233/2012 Dekretua, eta Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen 73/2021, otsailaren 23ko Dekretuaren 14.1) artikulua oinarri hartuta, txosten hau ematen dut:

a) Hizkuntza arloko araudiaren betetze maila.

Abuztuaren 31ko 128/2007 Dekretuak xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezarri zuen: “*euskararen erabileraren normalizazioaren arloan eskumena duenak araua prestatzeko hasierako fasean esku hartu ahal izan dezan*”. Azaroaren 6ko 233/2012 Dekretuak, aurrekoa indargabetuz, bere 4. artikuluan eskaera egiteko epea ezartzen du:

“Proiektua izapidetzen ari den sailak egingo du aholkularitza txostena emateko eskaria, hori taxutzeko espedientea behin-behinekoz onartzeko agindua publiko egin ondoren, eta instrukzioa egin duen saileko zerbitzu juridikoak dagokion txosten juridikoa eman ostean”.

Izapidetutako dokumentuetan jasotzen denez, aztertzea eskatzen zaigun xedapenaren alde aurreko onarpena abuztuaren 2koa da eta, abuztuaren 6koa zerbitzu juridikoaren txostena. Bete da, beraz, aipatu Dekretuak xede horrekin araututakoa.

Bestalde, hasieratik *Tramitagunen* zeuden Lege-aurreproiektuaren euskarazko zein gaztelaniazko testuak; beraz, horrela eginda, bete egin zen abenduaren 22ko 8/2003 Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren Legearen 7. artikulua.

b) Euskararen erabileraren normalizazioaren gaineko eragina.

Lege proiektuaren xedea da, 1. artikuluan esaten den bezala:

1.a “Euskal herritarren osasuna interesik handieneko ondasun publiko gisa zaindu eta sustatzea, pertsonen osasunaren arloan dituzten eskubideak, aukera berdintasuna eta ekitatea bermatuta...”

1.d “...Euskadiko Osasun Publikoko Sistema baliabide propioi kualifikatuekin eta funtzionamendu- printzipio jakin batzuen araberaosatzen da. Printzipio horiek, sistemaren gobernu onean oinarrituta, osasun publikoko ekintzak eta prestazioak trebetasun, bikaintasun eta efizientzia sozialik handienarekin aplikatuko direla bermatzen dute eta herritarrengan konfiantza eta segurtasuna sortzen laguntzen dute.”

Artikulu horretan herritarrak aipatzen direnean bai euskaldunak eta bai gaztelania hiztunak barne hartuko dituzenez bien hizkuntza eskubideak bermatu beharko ditu sistemak, “efizientzia sozial handiena” lortzeko. Horren aipamena artikuluan gomendatzen dugu.

2.2 artikulua, esparruaz aritzen dena, esaten du:

“ Lege honetan ezarritakoa Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorriari, bertan kokatutako foru- eta toki-administrazioei, haien guztien mende edo haiei lotuta dauden erakundeei eta osasun publikoan eragina duten ekintzak egiten dituzten erakunde pribatuei aplikatuko zaie...”

Beraz, 1. artikuluan aipatzen dituen xedek, herritarren hizkuntza eskubideak barne, administrazio publikoa behartzeaz aparte, haiekin lotuta dauden erakundeei eta osasun publikoan eragina duten ekintzak egiten dituzten erakunde pribatuak ere behartuko ditu. 1. artikuluan hori jasotzea gomendatzen dugu.

3. artikulua, printzipio gidariak, 3.m apartatuan aipatzen du:

“...herritarren parte-hartzea, lankidetzaren eta erantzunkidetasuna osasun publikoko politiken eta ekintzen formulazioan eta kudeaketan, betiere informazio fidagarria, ulergarria eta baliagarria eskuratzeko aukeran...”

Bigarren kapituluko lehen atalak, bere 6. artikuluan herritarrek osasun publikoari dagokionez dituzten eskubideak arautzen ditu. 6. 3 azpiatalean aipatzen du *Euskadiko Osasun Publikoko Sistemak bermatu egingo duela pertsona orok sistema horren egiturekiko harremanetan EAEko edozein hizkuntza ofizial erabiltzeko duen eskubidea, abenduaren 22ko 6/2003 Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuaren Legeak dioenari jarraituz*. Eskubide hori Osasun Publikoko Sistemako egiturekiko harremanetan bakarrik ez dadila bermatu gomendatzen dugu: Lege aurreproiektu honek bere 2 artikuluan esaten duen bezala - bere esparru barruan geratzen direlako-, bermatu dadila aplikazioa herritarrek beraiekin lotuta dauden erakundeekin eta osasun publikoan eragina duten ekintzak egiten dituzten erakunde pribatuetan ere.

Laugarren atalak, bere 41.4 artikuluan esaten du:

“Osakidetza/Euskal Osasun Zerbitzuko lehen mailako arretako taldeek, ... osasun publikoaren arloarekin koordinatzeko erreferentzia teknikoa bere agin hartuko duen pertsona bat izendatuko dute, gutxienez, ... Beren asistentzia-zereginei prebentzioaren, sustapenaren eta informazio-sistemen arloan osasun publikoaren arloko ardura duen Eusko Jaurlaritzako organoak ezartzen dituen komunikazioa eta koordinazioa gehituko dizkiete”.

Izendatutako pertsona horren betebeharrak ikusita, izendatutako horrek bere lan hori EAEko bi hizkuntzatan, bai euskaraz baita gaztelaniaz ere, egiteko ahalmen nahikoa izatea gomendatzen dugu, Osakidetzako erabiltzaileen hizkuntza eskubideak bermatu daitezen.

Aurreproiektuaren laugarren kapituluaren bostgarren atalean kontsulta, aholkularitza eta parte-hartzeko organoak arautzen dira. Atal horren 44. artikulua Osasun Publikoaren Euskal Kontseilua arautzen du eta bere egitekoak eta izaera arautzen ditu. Bere osaera erregelamendu bidez ezarriko dela esaten da 44.2 artikuluan, baina gutxienez ordezkatuta egongo diren batzuen zerrenda zehazten da. Jakinda Kontseilu honen egitekoak zeintzuk diren – 44.4. artikuluan arautzen dira-, kontseilukideek Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan egon daitekeen dokumentazioa kudeatu ahal dutenez eta, era berean, gainontzeko batzordekideen hizkuntza eskubideak modu eraginkorrean bermatu beharko dituztenez, komenigarria ikusten dugu euskararen ezagutza kontuan izatea batzordeko partaideak izendatzerakoan.

Gomendio berdina egiten dugu seigarren kapituluaren bigarren atalean arautzen den Euskadiko Osasun Behatokiaren osaera arautzerakoan: kideen aukeraketa egiterakoan bi hizkuntza ofizialen ezagutza kontutan hartzea.

Adeitasunez,

Joseba Lozano Santos
Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendaria